


PROGRAMA
EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2024



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao

2024-2028 Programa Proiektua prestatzen ari gara,
etorkizuneko kultura-ondarea eraikitzen

6

Interfazearen artea

8

Hiruhileko honetan gurekin
izango dira...

PROGRAMAZIOA

10



**Christa Sommerer y
Laurent Mignonneau**

*The Artwork as a Living
System.* Erakusketa

12



Bene Bergado

Decrecer. Erakusketa

13

Elena Aitzkoa

Artista AZ-kidea. *Ur Aitzak*

14

Ulises 2.0

Erakusketa

15

Maia Villot. Babestu.

Sorkuntzari Laguntzeko

Programa

AMA-preludio

16

**Francisco Ruiz de Infante
(Cía Hors Champ // Fuera
de Campo)** *Polptico de las
operaciones (Jamás-Jamás
2024 // aventuras peligrosas
para un Aquí y un Ahora)*
Erakusketa-proiektua

17



Cris Blanco. eszenAZ

Grandissima illusione.

Antzerkia

18

Laenanarananja. eszenAZ

Zimurren artean kontukantari

3. Musika eta txotxongiloak

19



Caspervek. eszenAZ

Las aventuras del príncipe

Achmed. Zinema eta musika

20

Lari Produkzioak. eszenAZ
Zaintzaren dantza. Antzerkia

21



Paul B. Preciado. eszenAZ
Yo soy el monstruo que os habla. Hitzaldi dramatizatua

22



Gaston Core. eszenAZ
Antes que caiga la noche.
Dantza, Rap, Hip hop

23

Dantzerti. Show
Dantza

26

Classique = Moderne.
Zinematekaren historia
berria. Zinemateka

29

Zinema zikloa: Julia
Martos. Elkarrizketa eta
proiektzioa

30

Azkuna Zentroa iruditan

SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

34

Sorkuntza garaikidean
laguntzeko programa

35

Babestu. Sorkuntzari
Laguntzeko Programa

38

Azkuna Zentroko Artista
AZKideak

40

Azkuna Zentroko Ikertzaile
AZKideak

41

Azkuna Zentroko Kolektibo
Egoiliarra

42

Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia

44

Ziomara Hormaetxe. *Alma*

45

Culture Testbeds for
Performing Arts and New
Technology. ACuTe

HEZKUNTZA PROGRAMA

48

Zinema-elkarrizketak.
Argiak, kamera... ekin!

48

Komikiari buruzko
ezinbesteko elkarrizketak

48

Ulyses 2.0 erakusketarako
bisitak

49

*The Artwork as a Living
System.*
Audiogida-tailerra

49

eszenAZ. Hezkuntza-
komunitatearentzako
ikuskizunak

AZ

53

JFZ

54



AZ argitalpenak

60

Informazio orokorra

Interfazearen artea

Hiruhileko honetan, arteak eta teknologiak hartuko diote lekukoa eskulturari Erakusketa Aretoan. [Bene Bergado](#) artistaren *Decreecer* proiektuaren ondoren, [Christa Sommerer](#) eta [Laurent Mignonneau](#) bikote artistiko austriar-frantsesaren *The Artwork as a Living System* lana izango dugu ikusgai, nazioarteko erreferenteak baitira arte digitalean. Erakusketak hogeita hamar urteko ikerketa eta garapenaren historiaren berri ematen du, denbora hori eman baitute bizitza artifizialeko sistemak aztertzen, artea eta natura instalazio interaktiboan bidez lotuz.

ARTEA, SISTEMA IREKIA

Christa Sommerer-ek eta Laurent Mignonneauk sistema ireki gisa proposatzen dute artea, izan ere bertan «sorkuntza ez da ulertzen artistaren barne-sormenaren edo "asmamenaren" adierazpen gisa, baizik eta berez prozesu dinamiko modura, interakzio-parametroetan eta obraren irudiaren bilakaera-prozesuetan oinarritzen dena».

Paradigma-aldaketa horretan, interfazeak, gizakia makinarekin lotzen duen elkarguneak, garrantzia hartzen du sormen-elementu gisa, eta ezinbestekoa da artelana ikusgai egiteko eta harekin esperimintatu ahal izateko.

Garapen tekniko berritzaileen bidez, pertsonak, mundu birtualean sartzeaz gain, sortu ere egiten dituzte. Hori guztia arte-natura diskurtsoari uko egin gabe. Horregatik, interfaze sentikor gisa erabiltzen dituzte landareak, ura eta argiak, pertsonak aukera izan dezaten ingurune birtualak sortzeko eta haiekin konektatzeko.

EKOSISTEMAREN PARTE IZATEA ETA SENTITZEA

Horren emaitza diren artelan interaktiboetan, publikoak naturarekiko harremana fisikoki sentitzen du eta jabetzen da edozein erabakik, txikia edo indibiduala izan arren, aldaketa handiak eragin ditzakeela ekosisteman.

Erakusketa honetan, publikoen komunitateek aukera izango dute artelanak ukitu eta esperimentatzeko, baita zientziaren eta teknologiaren arlo desberdinei buruzko kontzeptuetara hurbildu eta ulertzeko: hala fisika kuantikoa eta sistema konplexuen teoria, nola genetika molekularra, nanozientzia eta bizitza artifiziala.





ARTE DIGITALAREN KLASIKOAK

Christa Sommerer eta Laurent Mignonneuren lanak ia klasikoak dira arte digitalean, sarituak izan dira munduko arte, zientzia eta kultura digitaleko jaialdi nagusietan, eta 250 erakusketa baino gehiagotan egon dira erakusgai.

Beren lana Karlsruheheko (Alemania) ZKMko Media Museum-en, NTT InterCommunication Center-en eta Metropolitan Museum of Photography-n (biak Tokion), Parisko Cartier Fundazioan, Londresko Millennium Dome-n eta Linz-eko (Austria) Ars Electrónica Centre-n daude.

NEW MEDIA ART

The Artwork as a Living System Azkuna Zentroak duen lankidetzaren sarearen bidez iritsiko da Bilbora, eta Europako arte garaikideko hiru zentro nagusik koproduzitu eta izan dute ikusgai: ZKM | Karlsruheheko Arte eta Hedabideen Zentroa, Alemanian; Linzeko OÖ Landes-Kultur GmbH, Austrian; eta Bruselako iMAL, Belgikan. Karin Ohlenschlägeren kontzeptu batean oinarrituta dago, eta hasieran Karin Ohlenschlägerrek berak komisariatua zuen, Peter Weibel eta Alfred Weidinger-ekin batera.

Proiektuak kultura digitalekin lotzen du publikoa, new media art erakusketa baten bidez, arte garaikidea ikusteko eta sentitzeko duen gaitasun eraldatzailea jorratuz.

Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurten abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.




Elena Aitzkoa
Artista AZ-Kidea



Ion Munduate
Artista AZ-Kidea



Lore Stessel
Artista AZ-Kidea



Ça Marche (Nico Jongen, Laura Viñals)
Artista AZ-Kideak



Amaia Molinet
Artista AZ-Kidea



Idoia Zabaleta
Artista AZ-Kidea



Olatz de Andrés
Artista AZ-Kidea



© Eduardo D'Acosta


Julia Martos
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



Maia Villot
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



Pablo Marte
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



Jon Gerediaga
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa




Abel Jaramillo
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa




© Aurélie Bayard


Gala Knörr
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



Lorea Burge
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa




Ane Berganza
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



Isabel de Naverán
Ikertzaile
AZ-Kidea



Rosa Casado
Ikertzaile
AZ-Kidea



Ixiar Rozas
Ikertzaile
AZ-Kidea



Gorka Rodriguez, Arrate Presilla, Maialen Ariz, María Arana. Urbanbat
Azkuna Zentroko
Kolektibo Egoiliarra



Ziomara Hormaetxe
Koreografoa



Gaston Core
Koreografoa



Francisco Ruiz de Infante
Artista



Fran Mengual
Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia



Lisa Blumen
Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia



Pascale Sévigny-Vallières
Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia



Cía. Laenanarananja



Bene Bergado
Artista




JL Moraza
Komisarioa eta artista



Cris Blanco
Sortzaile eszeniko



Christa Sommerer & Laurent Mignonneau
Artistak



Maria Urcelay, Na Gomes & Yogurinha Borova
Lari Produzioak



Paul B. Preciado
Filosofoa, arte-komisarioa eta idazlea



Caspervek
Musika taldea

Paul B. Preciado

Yo soy el monstruo que os habla

2019ko abenduan, [Paul B. Preciadok](#) hitzaldia eman zuen Parisko l'École de la Cause Freudienne-ren jardunaldietan bildutako hiru mila eta bostehun psikoanalistaren aurrean. Franz Kafkaren testuari berriz helduz — non giza hizkuntza ikasi duen tximino bat zientzialarien akademia bati mintzo zaion—, Paul B. Preciado gizon trans gisa eta genero ez-bitarreko pertsona gisa mintzo zaio psikoanalisten batzarrari, alde batetik, psikiatriaren, psikologiaren eta psikoanalisiaren egiturazko indarkeria salatzen, homosexual, trans, intersexual edo genero ez-bitarreko hartzaren diren pertsonen dagokienez, eta, bestetik, psikoanalisiari gonbit egiteko gaur egungo genero- eta sexu-mutazioetara ireki dadin. Eraitza bakarrizketa bat da, aldi berean intimoa eta politikoa, eta psikoanalistei ez ezik, guri mintzo zaigu, aldaketa onartzeko eta utopia berri bat irudikatzen dugun gaitasunari.

Filosofoa, arte-komisarioa eta zinema-zuzendaria da. Nazioartean ezaguna da gorputz, genero eta sexualitatearen politikei buruz egindako lanagatik, eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok ekoiztutako Cabello/ Carceller artisten *Ahots bat Erasorentzat*. *Trans garai baterako epilogo*a erakusketaren komisarioa da.



OTSAILAK 15, OSTEGUNA

19:00

Auditorioa

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

90'

FITXA ARTISTIKOA

ekoizpena: Elena Artesescenicás

Antzezleen zerrenda: Paul B. Preciado, Bambi, Victor Viruta, Andy Díaz, Fabi Hernández

Testua eta zuzendaritza: Paul B. Preciado

Lankidetzako artisten zerrenda: Tanja Beyeler y Natalia Álvarez Simó

eszen//AZ

Azkuna Zentroko Arte Bizien
Denboraldia 2023-2024

eszen//AZ

Azkuna Zentroko Arte Bizien Denboraldia 2023-2024

Cris Blanco

Grandissima illusione

Antzerkia

ESTREINALDIA EUSKADIN

Urtarrilak 18, osteguna

LaEnanaNaranja

Zimurren artean kontukantari 3

Musika eta txotxongiloak

ESTREINALDIA

Urtarrilak 20, larunbata

Caspervek

Las aventuras del príncipe Achmed

Zinema mutua zuzeneko musikarekin

Urtarrilak 28, igandea

Lari Produkzioak

Zaintzaren dantza

Antzerkia

ESTREINALDIA

Otsailak 4, igandea

Paul B. Preciado

Yo soy el monstruo que os habla

Hitzaldi dramatizatua

Otsailak 15, osteguna

Gaston Core

Antes de que caiga la noche

Dantza, Rap, Hip hop

Martxoak 2, larunbata

Dantzerti Show

Dantza

Martxoak, 13 asteazkena

Martxoak 14, osteguna

Nazario Díaz *amanecer alto cielo*

Dantza

ESTREINALDIA EUSKADIN

Apirilak 11, osteguna

Led Silhouette *Halley*

Dantza

ESTREINALDIA EUSKADIN

Apirilak 25, osteguna

Pablo Viar *Confines*

Antzerkia

ERABATEKO ESTREINALDIA

Maiatzak 23, osteguna

Rosario Toledo *Cuarteta*

Dantza

Ekainak 6, osteguna

Antzerkia, musika, dantza eta performancea sentitzeko beste era bat

AUDITORIOA+KUBO BALTZA

PARTNER-AK

Eskerrak eman nahi dizkizuegu

lurraldearekin duten konpromiso sozialetik, laguntzen diguten erakunde pribatu eta publikoei, gizarte kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Sare irekia gara

artearen bidez gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta anitzagoa sortzen laguntzen duen proiektu batean parte hartu nahi duten erakunde guztientzat.

Sustatzailea _____



Babesle estrategikoa _____

Kideak _____



Itun kulturalak _____



Itun kulturalak: Arte biziak _____



Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako programa

Partner teknologikoa _____

Hiriko aliantzak _____



Media partner-ak _____



Kide diren programak _____



Kubo Baltza eta Auditorioa _____



Kubo Baltza eta Auditorioa guneak teknologia digitalaz hornitu dira, esperientzia eta espazioa hobetzeko, Next Generation Europako Funtsei esker. Funtse horiek Euskadiko arte eszenikoen azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko dira.

INFORMAZIO OROKORRA

ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

Kontsultatu ordutegi bereziak webgunean

BISITA GIDATUAK

eraikina

Bisita gidatuak eraikinetik

Ordubeteko ibilbidea Alhóndigatik, eraikinaren historia, eraldaketa eta egungo proiektua ezagutzeko.

Partikularrak

- Asteartea eta asteazkena, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

Taldeka

- Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonon edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoaren bidez.
- Prezioak:
Euskaraz edo gaztelaniaz: 60 € taldeentzat.
Ingelesa edo frantsesa: 70 € taldeentzat.
Elkarte eta ikastetxeentzat (aldez aurretik kontsultatu).



erakusketak

Erakusketarako bisitak

- Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, erakusketak testuinguruan kokatzeko:

Bene Bergado. *Decrecer / The Artwork as a Living System*

Erakusketa Aretoa

Ostegunero, 18:30etan (euskaraz edo gaztelaniaz, eskaeraren arabera)

Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

AZ TXARTELA

AZ Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan AZ txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, AZ Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

DESKONTUAK ETA PREZIO BEREZIAK

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok kultura-aniztasun irigarria sustatzen du pertsona guztientzat, eta, besteak beste, tarifa murriztuak ditu, hala nola, taldeentzat, profesionalentzat, ikasleentzat, gazteentzat, aniztasun funtzionala duten pertsonentzat eta beste kolektibo batzuk, dagokion egiaztapena erakutsiz.

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu **golem.es** webgunean.

YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu **yandiola.com** webgunean.

IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irigarria.

Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetzekoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.

Azkuna Zentroak Irisgarritasun Unibertsaleko AENOR ziurtagiria du, UNE 170001-1 arauaren arabera.

Kontsultatu zentroaren irisgarritasun-neurriak gure webgunean: azkunazentroa.eus



HARPIDETU ZAITEZ GURE NEWSLETTER-ERA AZKUNAZENTROA.EUS HELBIDEAN



HILEKO PROGRAMAZIOA AUDIOZ

Audio formatuan deskarga dezakezu:
soundcloud.com/azkuna-zentroa



KONTSULTATU PROGRAMAZIOA HEMEN: AZKUNAZENTROA.EUS



JAR ZAITEZ HARREMANETAN AZ-REKIN

944 014 014
info@azkunazentroa.eus



B

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

**AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO**